

Nahia Enparantza Agirre

A maila • 3 saria

Nahia Enparantza Agirre naiz, 17 urte ditut eta batxilergoko azken urtean nago. Nire zaletasunak oso ohikoak dira kirola, lagunekin egotea... Hala ere, bereziki bidaiatzea maite dut eta munduko txoko berriak ezagutzea. Beti ez denez posible, idazteak etxetik atera gabe bidaiatzea ahalbidetzen dit. Ipuin hau txiripaz aurkeztu nuen lehiaketara, beraz, saria irabazi nuela adierazi zidatenean, poz handiz jaso nuen berria.



OSTIRALEAN ZORTZIETAN?

Azkenean agur esateko ordua iritsi zen; jada bazen aste bete udako oporraldia amaitu zela eta hainbeste hilabetetan zehar prestatzen ibili ondoren, heldu zen jaioterria utzi eta Parisera ikastera joateko eguna. Hain buru-belarri sartuta nengoen udan, beroan, itsasoan, hondartzan, non sekula ez zela iritsiko pentsatzen bainuen.

Nahiz eta zazpiak izan, oraindik ere ilun zegoen zerua; soilik leiho eta gortinak zeharkatzen zituen ilargi betearen eta kaleko farolen argiek argitzen zuten nire gela. Ez ziren oso ondo antzematen, baina gela hutsik zegoenez, dekorazio-albizkarietan ateratzen diren horietakoa ematen zuen. Duela pare bat egun bidali genituen postaz nire gauza guztiak. Ama, gustura egon zitekeen, normalean nire txokoak ukuilua ematen baitzuen.

Ordu batzuk beranduago Parisen nengoen nire apartamentu berrian. Ez zen oso handia, baina pertsona batentzat nahikoa baitzen. Bestalde, berri-berria ere ez zen, ehun urte inguru izango zituen; gure aitonaren familiarena zen. Txikitan bertan bizitakoak ziren, baina aitonak hogei urte zituenean Euskal Herrira etorri ziren bizitzera, eta, harrezkero, etxea hutsik egon zen, nahiz eta noizik behin oporraldiak pasatzera joaten ziren. Hiriari dagokionez, Paris ikaragarri polita eta atsegina zen: Tour Eiffel, Arc de Triomphe, Musée de Louvre... Bazter eta txoko interesgarriak beteta zegoen.

Egunak joan eta egunak etorri, goiz batean nire txirrina jo zuten, tirrin-tirrin. Postaria zen eta niretzat gutun bat zeukan; arraroa egin zitzaidan, oraindik ere ez bainuen nire postontzia aldatu; hala ere, ez nion bestelako garrantzirik eman, ziurrenik nire helbidera erratuta sartu baitzuten beste bizilagunen batena. Hori zela eta, ez irekitzea erabaki nuen, bere itxurak atentzioa eman bazidan ere: gutun-azaleko paperak duela hamarkada batzuetakoa ematen zuen, jada horituta zegoen eta hezetasun markak zituen; gainera, erdian zigilu gorri handi bat zuen, pelikuletan erregeek argizariz egiten zuten antzekoa. Esan bezala, ez nion garrantzirik eman. Hurrengo astean, ordea, berriro jo zuten txirrina, eta orduan ere postaria zen aurrekoaren antzeko beste eskutitz batekin. Eta horrela beste aste pare batez luzatu zen,

PROSA

beti egun eta ordu berean. Azkenean, jakin-minak jota gutun misteriotsuak irekitzea erabaki nuen. Horrela zioen lehenengoak:

1961-08-18

Philip maitea:

Aitak gaur goizean eman dit berri negargarria. Jakinarazi dit zu eta familia Euskal Herrira joango zaretela bizitzera abuztua bukatu bezain laster. Ezin dut sinetsi, erabat harrituta nago. Joan aurretik agurtzea gustatuko litzaidake; espero dut ez beranduegi izatea.

Monakotik bi egun barru itzuliko gara; beraz, ostiralean zortzietan betiko tokian?

Maite zaitut,

CB

Oh mon dieu! Ezin nuen sinetsi, ikaragarria! Gutuna nire aitonari zuzenduta zegoen, baina data zuzen bazegoen orain dela hirurogei urtekoa zen. Zer zela eta iritsi zen orain? Zergatik hainbeste denbora igaro ondoren? Eta garrantzitsuena nor zen CB? Aitonaren maitalea? Argi dagoena da erabat maiteminduta zeudela. Denborarik galdu gabe, ziztu-bizian, gainontzeko kartak ireki nituen. Antzekoak ziren, bere bihozmina adierazten zion eta berarekin geratzeko eskatzen zion, biek elkarrekin alde egiteko. Azkenekoa, ordea, jada ez zen abuztukoa, irailekoa baizik, eta amore eman zuela eta betiko galdu zuela esaten zion, bien argazki bat ere bazegoen. Ai ama! Hau ikaragarria zen, aitona ez baizituen gutun horiek inoiz ikusi, eta iritsi balitzaizkio, behar bada, CB izeneko harekin geldituko zen, ez zen Euskal Herrira etorriko, amona ez zuen ezagutuko, eta, bere/gure bizitza zeharo desberdina zatekeen. Une batez zera pentsatu nuen: Sinesgaitza dela gertakizun xehe batek nola alda ditzakeen hainbat bizitza, ezjakintasunak nola aldatu zuen aitona, eta halabeharrez gure etorkizuna, ezta?

Aitona gaur egun laurogei urteko agurea da; betidanik, edo nik ezagutu dudanetik behintzat, oso isila izan da, barnerakoia, pentsamenduak berarentzat gordetzen dituen horietakoa. Inoiz ez digu askorik kontatu bere bizitzari buruz, Pariseko garaiaz eta are eta gutxiago bere maitasun harremanez. Azkenaldian, gainera, amona hil zenetik, geroz eta gutxiago irteten da etxetik, batere ez du hitz egiten eta burumakur dago. Kontatu egin beharko nioke? Beharbada emakume hau jada hilda egongo da. Baina justua da eta zilegaia berak egia osoa jakitea, eta horrela, gainera, misterioa argituko dut, bai!

Esan eta egin, hurrengo goizean aitonari deitu nion:

- Bonjour, aitona, zer moduz?
- Oh, laztana, ondo, beti bezala, goizean baratzean, arratsaldean pilota-partidua ikusten... Eta, zu, Paris aldean zer moduz?
- Ba, juxtu horregatik deitzen nizun. Ezagunak egiten al zaizkizu CB inizialak?

Biok isil-isilik geratu ginen, ez zen ezer entzuten, isiltasuna benetan astuna zen. Eskegi egin al dit?

PROSA

- Aitona?
- Bai, hemen jarraitzen dut. Camille Bonnet-enak dira. Baina, zuk nola dakizu hori?
- Gutun bat iritsi da, orain dela hirurogei urtekoa.

Horrela orduak eman nituen aitonarekin hizketan; hasieran galderak sahiesten saiatu zen, baina, azkenean, dena kontatu zidan. Camille Bonnet delakoa txikitatik bere lagun mina izan zen eta ondoren zertxobait gehiago. Bien gurasoek elkarrekin enpresa bat zuten, eta beti batera egoten ziren, familia bakarraren gisa. Halako batean, ordea, gurasoak haserretu egin ziren negozioak tarteko; harrezkeroz ezin izan zuten elkar ikusi, eta erabat aldentu ziren bi familiak. Hala ere, aitonak eta Camillek elkar ikusten jarraitu zuten gurasoek debekatu arren. Horrela, asteen behin, ostiralero zortzietan Place Dauphin-en hitzordua zuten. Bien ametsa handik alde egitea zen elkarrekin egoteko. Gero denok dakiguna gertatu zen, aitonak ez zituen Camillen gutunak jaso eta Euskal Herrira etorri ziren. Aitona benetan goibel eta jota antzeman nuen, gogorra baitzen istorioa: izan zitekeenaren eta inoiz izan ez zenaren samina zuen bihotzean. Gertatutakoa benetan jakin izan balu, eskutitzak garaiz jaso izan balitu... Horrexegatik ezin zen istoria horrela amaitu. Camille aurkitu behar nuen! Aitonak, nahigabetsu, baina, badaezpada, garai hartako helbidea eman zidan, eta, ideia zorua iruditu arren, barre egin zuen. Planak ez zuen arrakastaren izpirik, baina esperantza da galtzen den azkena, edo hori esan ohi da, ezta?

Nire ikerketari eman nion hasiera. Lehenik eta behin, errazenera jo nuen eta Interneten aritu nintzen bere izenaren bila, badaezpada ere, inoiz ez baitakizu zer aurki dezakezun sarean. Askotan, Instagramen, Facebooken, egindako lanen bat, edo argazkiren bat azaldu ohi da. Kasu honetan, ordea, ez zen horrela izan. Ondoren bururatu zitzaidan "orrialde hori" zaharretan begiratzea, egun, geroz eta jende gutxiagok dauka telefono finkoa, baina behin edo behin ikusita nituen gurasoak bertan begiratzen norbaiten telefonoa edo zuzenbidea bilatzeko; horregatik, aukera bat izan zitekeen. Hala ere, ez nuen zorterik izan: B-z hasten ziren abizenen orrian eta Bonnet abizenekoan bazeuden: Marie, Agathe, Caroline, Anne, Claudine, baina Camillik, tamalez, ez.

Pentsatzen hasita nintzen ez nuela sekula aurkituko, eta normala zen; azkenekoz duela hirurogei urte aitonak ikusi zuen inor nola topatuko nuen bada? Benetan oso informazio gutxi nuen eskura; bere helbidea eta argazkia, ezertarako balioko ez zuena zeharo aldatuta egongo baitzen. Ups, helbidea! Nola ahaztu nuen hain azkar. Saiatu behar nintzen. Unibertsitatetik atera bezain laster horixe egingo nuen. Ostiral hartako ordu guztiak ordulariari begira eman nituen, tik-tok-tik-tok; ez al ziren inoiz ordubiak iritsiko! Azkenean jo zuen txirrinak, gauzak hartu eta korrika joan nintzen autobus geltokira., Rue du Chatelier 1, huraxe zen aitonak eman zidan helbidea. Hamar minutu inguru pasatu ondoren, hantxe nengoen bere ateari begira; ordurarte, uste dut, ez nintzela kontziente izan egiten ari nintzenaz. Zer demontre esango nion nik emakume hari? Gainera, seguruenik ez zen bertan biziko. Kezkak alde batera utzi eta txirrina sakatzera ausartu nintzen: tirrin, tirrin... Ez zuen inork erantzun. Berrir probatu nuen, tirrin- tirrin, baina orduan ere inor ez. Halako batean, jada amore eman nuenean mutil gazte baten ahotsa entzun nuen bozgorailuaren beste aldean.

-Bon après-midi, zer nahi duzu?

-Ezagutzen duzu Camille Bonnet?

PROSA

Bere ahotsaren tonuarengatik ezetz sumatu nuen, eta halaxe erantzun zidan. Ondoren, zerbait jakitekotan aldamenean zegoen liburu-dendako andreak jakingo zuela esan zidan, auzoan betidanik egon zela, eta hori esan ondoren eskegi egin zidan.

Liburu-denda zaharra zen, Parisen betidanik egon zela ematen zuen. Sartu eta liburuz jositako apalen artean dendaren adin bera izango zuen emakumea niri begira zegoela konturatu nintzen. Camilli buruz galdetu nionean, begiak piztu zitzaizkion.

- Camil Bonnet? Nire lagun mina zen gazte garaian, urteak dira ikusten ez dudala; ezkondu zenean bera eta senarra Parisko beste auzo batera joan ziren bizitzera. Ordundik harreman guztia galdu nuen. Lehen etortzen zen hilean behin kafe bat hartzera, baina jada denbora luzea pasatu da azkenekoz elkar ikusi genuenetik.

Agurtu eta eskerrak eman nizkion, “mercy beaucoup”. Dendatik atera bezain pronto ohartu nintzen ez neukala beste aukerarik.

Etxeetan azken eguzki printzak islatzen ziren, eguzkia ezkutatzear zegoen. Etxera bueltan nire pentsamenduetan murgilduta nindoan, behin eta berriz karta guztiak errepasatzen, zerbait galdu nuen ustean. Bat-batean, munduko ideiarik zoroena etorri zitzaidan burura: aitonaren ostiraletako hitzordura joatea. Ia ezinezkoa zen bera han egotea, hirurogei urte pasatu ziren, gainera, familia bat zuen... Baina, edozer gerta liteke. Ordulariari begiratu eta orratzek zazpi t´erdiak markatzen zuten. Autobusez ez zegoen hain urruti, baina Parisen ordu horretan egoten den trafikoarekin eta “bouchon”ekin, batek zekien!

Zortziak pasatxo iritsi nintzen plazara, ez zegoen jende asko: bikote batzuk, artistak beraien kuadroekin... Han bazegoen ere, ez zen batere erraza izango aurkitzea. Nork zekien egun izango zuen itxura. Plaza guztia bizpahiru aldiz ikuskatu ondoren, hantxe agertu zen amonaxo bat. Ai ama, ezinezkoa zen! Argazkian agertzen zen neskaren antza zuen, nire ikusmenaren akatsa izango ote zen?

-Camille?

-“Oui, c’est moi”; bai, ni naiz.

-Bejondeizula. Pozik izan zaitezke. Arrazoi zenuen. Zure bihotzak ez zaitu engainatu urte hauetan gehienetan. Philip hemen izango duzu datorren ostiralean, zortzietan, zuen orduan... Eta emakume biok negarrari eman genion.